



BESTE BILERA BAT EGIN DU ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUAK

Eztabaida, gogoeta eta partaidetza handia, laneko bilera bizi batean

Martxoaren 14an, Donostiako Aiete Jauregian bildu ziren Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluko kideak. Dagoeneko gorpuzten ari da ikasturte honetarako proposatu zen lana: hau da, ikus-entzunezko materiala prestatzea, haur txikien artean umeen eskubideak zabaltzeko. Adierazteko eta iritzia emateko eskubidea zer den eta zer dakarren berekin sakon aztertzeke unea zen, gai hori aukeratu baitzen aurreko bileran. Horrela, dena prest geratuko da gidoiak egiteko eta bideo bat grabatzeko.

Haur eta Nerabeen Kontseiluaren kontakizuna:

“2014. urtean, 25 urte betetzen dira Nazio Batuek Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuenetik. Hori dela-eta, Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluko kideok hauxe erabaki genuen 2013-2014 ikasturteko lehenbiziko bileran: hitzarmen horretan bildutako haurren eskubideak zabaltzen eta sustatzen laguntzea. Horretarako, gure egunerokotasunetik, egun normaletan bizi ditugun eta gertatzen zaizkigun gertakarietatik hurbildu nahi genuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenera, eskubide bat aukeratu nahi genuen, berorretan sakontzeko eta film labur bat egiteko. Film horretan, eskubide hori azalduko zaie 6 eta 12 urte bitarteko haurrei eta “Eskubideen uhartea” web orrian sartu ahal izango da”.

Hitzarmeneko eskubide bakoitza guretzat zer den jakin eta adierazi genuen, Lego metodologiaren bitartez. Hasieran zertxobait “harrituta”, baina oso pozik egin genuen lan guztiarekin eta bukaeran ateratako ondorioekin. Gainera, zer eskubide zabalduko dugun ere erabaki genuen: adierazpen askatasunerako eskubidea (13. artikulua) eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea (14. artikulua)”.

Beraz, Aieteko bileran, eskubide horretan sakondu beharra zegoen: zer den, zer eta nola gauzatzen den, nola sentitzen naizen hori gauzatzean, zer oztopo aurkitzen ditudan ... Ideiak garbi eduki behar dira, gero gure film laburreko mezuan bildu ahal izateko! Bideoak, taldekako lana, hitz egiteko txandak, elkarrizketa eta elkarri aditza, gure mezuaren oinarri izango diren 4 ideietara iristeko:



- *“Berdintasuna eta errespetua abiapuntutzat hartuta, nor bere buruan eta besteengan duen segurtasunean eta konfiantzan oinarritzen da adierazpen askatasunerako eskubidea, eta denok bakarrak eta arduradunak egiten gaitu”*
- *“Badakigu oztopoak edo beldurrak daudela gure eskubidea baliatzeko orduan, baina badakigu, halaber, horietatik harago doala gure adierazpen askatasunerako eskubidea. Gainera, baliteke bidean laguntza aurkitzea”*
- *“Gure eskubidea adierazi nahi dugunean, gure ideiak geure erara defendatu behar ditugu, pentsatuz eta helburu bat lortzeko borrokatuz, edozer nahi dugun bezala adieraziz (mintzatuz, idatziz,...). Eta, jakina, adituz”*
- *“Gure eskubidea baliatzen dugun bakoitzean, aske, harro eta pozik senti gaitzke. Baina, aldi berean, beldurra ere eduki dezakegu. Lasaituta eta lagunduta ere senti gaitzke”.*

*Jada badauzkagu gure film laburra eraikitzeko **zumeak!**”*